

Manex Erdozainzi-Etxart



poetaren heriotzaren 10. urteurrena

Manex Erdozainzi-Etxart gogoan

Duela hamar urte hil zen Ibarlako seme poetak belaunaldi bat markatu zuen

Tolosan (Okzitania), duela hamar urte zendu zen Manex Erdozainzi-Etxart poeta, Euskal Herriak mende honetan sortu duen gizon handietarik da, herritarren bizirik hurbil egonez sortu zuen obrarengatik. Langile nekaezina izan zenak poesia eta herria bihotzean zeuzkan. 'Manex gogoan' taldeak bere obraren inguruan ekitaldi batzuk bidean jarriak ditu.

L. ETXEZAHARRETA / BAIONA

Nafarroa Behereko Ibarla herri txikian jaio zen Manexek 49 urte zituen, Tolosa Okzitaniako hiri nagusian, garuneko odoljario batengatik zendu zelarik. Hilabete batzuk lehenago eraso berdintsua izan zuen eta medikuek pausaldi luzea egiteko eskatu zioten. Honi partez ez jarraitzeagatik bigarren erasoak eraman zuen. Bere ehorzketa, jende ostea bildua zelarik, Donapaleuko frantziskotarren elizan guztiz hunkigarria gertatu zen, maiatzaren lehen triste bat, eguzkipean gertatu baitzen Donapaleun, 1984 urtean.

Berehala denak konturatu zi-

euskaltzale kontzientziaren piztearen iturrietan Manexen pertsona etengabe aurkitzen da.

Hamar urteren buruan horren gogoratzeko 'Manex gogoan' izena hartu duen talde bat bildu da Donapaleun, aurtien zehar hainbat ekitaldi Manexen obraren inguruan antolatuko. Ekitaldi guztiak ez dira oraindik finkatuak baina puntu larrienak ia aipagarri dira.

Poetaren heriotzaren urteburu honetan bere etxeok eta laguna zuen Aita Bellemurenak bilduko dira Donapaleun, larunbat honetan frantziskotarren etxean. Maiatz elkarrekin kudeatu bi ekintza gertatu behar dira bestalde, maiatzean. Lehena da 'Bizitza pilpiran' liburuaren argitaratzea. Honetan bi obra argitaratu gabeak zirenak plazaratuko dira: izen bereko poema bilduma, 1981ean Domintxinen idatzia eta beste bat 'Nafarroari poema irekia' 1977an idatzi zuena. Erantsiko zaio 'Maiatz 1' aldizkarian argitaratu zen 1974an idatzitako kantata miragarria 'Herri honen erraietan'. 'Herri poetaren' dimentsioa argi erakusten duten testuak dira.

Aurtengo Maiatzen Solasaldietan, Baionan, datorren maiatzaren 11n, liburu horren aurkezpena egingo da, baita ere poesi errezial bat. Bertan bere poeme-

Hamar urteren buruan 'Manex gogoan' izena hartu duen talde bat bildu da Donapaleun, urte honetan zehar hainbat ekitaldi Manexen obraren inguruan antolatuko.

ren zein gizon erraldoia Euskal Herriak galdu zuen, frantziskotarren probintzial izatera iritsia zena. Barneko gogoeten gizona baitzen eta poesiari dedikatzen baitziren bere literaturzaletasun handia, zein plazagizon handia zen ez zekitenak ez ziren berehala konturatu. Hargatik, Iparraldeko kultur berpizkundea edo

tarik, batzuk musikatuak agertuko dira, omenaldi gisa.

EGUNKARIAK ere aipamen berezi honekin omenaldi honetan parte hartzen du, gaurko idazki hauekin. 'Herria' astekarian, hileroko plazaratzen den Kultur Gehigarriak bere lerroak Manexen aipamenei eskainiko dizkie. Piarres Xarritonek kudeatu bilduma agertuko da horrela.

'Jakin' aldizkarian, Agurtzane Ortizek Manexen obraren bibliografia zehatza argitaratuko du. Ekaineko alean agertzekotan dateke. Liburu berezi bater xedea ere airean da. Frantziskotarren etxean egon zen Mikelek Erdozainzi-Etxarten biziaz, bere testuak erabiliz, egindako obra gotorra argitara dateke aurtien.

Donapaleun egingo diren 'Manexen inguruko kultur aipaldi' batzuk bideratuko dira datorren larrazkenerako. Haize Berri edo Donapaleuko kultur elkarte euskaltzaleek diotenez, ohizko 'kultur asteak' baino egitura bereziagoa eman beharko litzaioke.



Erdozainzi-Etxartek poesia eta herria uztartzea izan zuen gogoan.

Hitz hauk

Hitz hauk ez dut nahi
Akademikoak izan ditezen
Dena itzuli-mitzuli
Hitz hauk ez dut nahi Jende handiek erreku-
pera ditzazten...
Hitz hauk nahi ditut
Irakur eta konpreni erretxak
Nere Herri langilearen
Tripatik eta odoletik
Ateraiak direlaket
Hitz hauk nahi ditut
Zorrotzak harri zorrotzia
Bezal-bezalakoak
Nere Herri langilearen
Karriketan eta ostatuetan
Bilduak dituztalaket
Hitz hauk nahi ditut
Gure sendimenaren erraile
Gure ikus-pentsamoldeen erraile
Hitz hauk nahi ditut
Gure karriketan eta ostatuetan
Beren bizitza segitzeko...
Hitz hauk maite ditut
Eta nahi ditut zaindu
Gure Herri langilearen hitzak
Direlaket!

IRITZIA

ITXARO BORDA
Idazlea

Hamar urte...

1 984eko maiatzaren lehenean Amikuze eta Oztibarre aldean hedatu zen berriak udaberriak ezitu bazterrak hormatu zitu. 49 urtetan Manex Erdozainzi-Etxart itzali zela jakin orduko inguruak dolutan jarri ziren, poeta frantziskotarrak hain maite zitu. Hegaztiak, zeruak, izarrak, Domintxine gainetik ageri ziren Garazi-ko mendi lerro urdinak eta hurbiletik nahiz urrunetik haren ezagutzeko zoriona zeukate-nak oro.

Ixiltasunaren poeta zen Manex Erdozainzi-Etxart. Ixiltasunaren eta itxurazko lasaitasunarena er bai. Itxurak, kasu honetan ez gaitzala engaina, olerkiak eresimin bortitzez betetzen zituelako Ibarlan sortua zenak. Euskararekin batera esperantza galtzearen zegoen jendealdearen gozagarri izkribatzen zituen biharko lurraldeen oihartzuna zeramaten hitzak.

Herri poeta kulto baten ertzetik ginabiltzala berant baizik ez ginen ohartu. 1970-1980 artean ez zen gaur bezainbat argitaratzen eta argitaratzen zirenak iparraldean behintzat, 'Hogei urte' poesi bildumaz aparte, ateporalak ziren. Manex Erdozainzi-Etxartek idatzi olerkiak, orain ikusten dugunaz, orduko orduan irakurtzekoak zirela senditzen dugu, liberatetako bide nekean mila harri zuriz seinatu norabidearen finkatzeko bezala. Libertatearen mitoa erranahi berriaz janzteko. Iraunarazteko. Ilunbeetako argizpiaren gisa.

Damua eta dolua dena damuroetan jostari dabilen egungoan eskualde hauetan hedatzen den idatz-moldea. Umezurtz. Poetak behar zela herriaren maitale eta euskarak lurraldetasunaren kontzeptutik kanpo iharduterik ez zuela, zigun agian taigabe errepi-katzen hitz-ñabarrez. Nolazpait, eta hori zor diogu, Manex Erdozainzi-Etxartek, Etxamendi baten maneran funtsean, iparraldeko idazle eginkizunaren mamia mugatu zigun: idazlea, pairatzen duen herriaren partzuer, herrimin berdinez pairatzen. Manex Erdozainzi-Etxarten obrak hori digu azpimarratzen.

Hamar urte jadanik.

Hortan gaude gu ere.

KUTTUNA

LAGUNTZA PSIKOLOGIKO
ETA SEXOLOGIKORAKO
ZENTROA. HEZIKETA
SEXUALERAKO TALDEA.

- ◆ Orientazioa, diagnostikoa eta laguntza psikologikoa.
- ◆ Depresioa, Larritasuna, Beldurrak...
- ◆ Bikotearen harreman arazoak.
- ◆ Sexualitatearen inguruko arazoak: gogo falta, inpotentzia....

NAVARRO VILLOSLADA 10, 1. Esk.
Tf.: 15 15 05 31003 IRUÑEA